**<u>BERTARATUAK</u>**
**<u>ALKATE-UDALBURUA</u>**

Saioa Villanueva Zarandona and.

**<u>ALKATEORDEAK</u>**

Alain Goldaraz Rodríguez jn.
Leire Pinedo Bustamante
Betitxe Saitua Estébanez and.
Juan Guillermo García de la Fuente jn.
Sonia Huidobro Ruiz and.

**<u>ZINEGOTZIAK</u>**

Josu Landaluze Zarandona jn.
Leire Basauri Castellanos and.
Naiara Ibarzabal Arrasate and.
Gontzal Hermosilla Ramos jn.
Felix Gabarain Amenabar jn.
Emilio Ramos Rodríguez jn.
Belén Urbieta Pérez, and.
María Teresa Fernández García and.
Pablo Ignacio Zabala Fernández,jn.
Berta Rodríguez Fernández and.

**<u>BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA</u>**

Begoña Irastorza Areizaga, and.

**<u>SRES. ASISTENTES</u>**
**<u>ALCALDESA-PRESIDENTA</u>**

Dª Saioa Villanueva Zarandona

**<u>TENIENTES DE ALCALDE</u>**

D. Alain Goldaraz Rodríguez
Dª Leire Pinedo Bustamante
Dª Betitxe Saitua Estébanez
D. Juan Guillermo García de la Fuente
Dª Sonia Huidobro Ruiz

**<u>CONCEJALES</u>**

D. Josu Landaluze Zarandona
Dª Leire Basauri Castellanos
Dª Naiara Ibarzabal Arrasate
D. Gontzal Hermosilla Ramos
D. Felix Gabarain Amenabar
D. Emilio Ramos Rodríguez
Dª Belén Urbieta Pérez
Dª María Teresa Fernández García
D. Pablo Ignacio Zabala Fernández
Dª Berta Rodríguez Fernández

**<u>SECRETARIA ACCIDENTAL</u>**

Dª Begoña Irastorza Areizaga

**Sopelanan, bi mila eta hamahiruko apirilaren hogeita hamarrean, arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Udaletxean bildu dira goian adierazitako zinegotziak, Saioa Villanueva Zarandona alkate-udalburu andrearen burutzapean, ohiko osoko bilkura egiteko, deialdian ezarritako gai-zerrendaren arabera, eta bertan izan da bilkuraren fede eman duen Begoña Irastorza Areizaga andrea, behin-behineko idazkaria**

**En Sopelana, a treinta de abril de dos mil trece, siendo las diecinueve horas y treinta minutos, se reúnen en la Casa Consistorial los componentes del Ayuntamiento arriba señalados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa-Presidenta Dña. Saioa Villanueva Zarandona, a los fines de celebrar sesión ordinaria de Pleno, con arreglo al Orden del Día designado en la convocatoria, con la asistencia de la Secretaria Accidental Dª Begoña Irastorza Areizaga que certificará del acto.**

**1.- 2013KO MARTXOAREN 26KO OSOKO UDALBATZAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.** <u>Osoko Bilkurak, aho batez, ondokoa erabaki du</u>: akta onestea

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION PLENARIA DE FECHA 26 DE MARZO DE 2013:-** Dada cuenta de la misma, <u>los asistentes, por unanimidad, acuerdan</u>: Su aprobación.

**2.- BERRI EMATEA.- 0341/2013 ALKATETZA DEKRETUA. GAIA:**

**2.- DACION DE CUENTA DECRETO DE ALCALDIA NUMERO 0341/2013, RELATIVO A**

**AURREKONTUA, KREDITUAK GAITUZ, ALDATZEKO 6. ESPEDIENTEA.:-** Honen berri eman da, eta hitzez hitz, honela dio:

**EXPEDIENTE NUMERO 6 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO**:- Dada cuenta del mismo, que es del siguiente tenor literal:

***ALKATETZAREN DEKRETUA 0341/2013 ZENBAKIDUNA***

***DECRETO DE ALCALDIA NUMERO 0341/ 2013***

*Sopelan, 2013ko apirilaren 8an.-*

*En Sopelana, a 8 de abril de 2013.-*

*Kontuhartzailetzako txostena ikusita, eta indarreko legeriarekin nahiz Sopelako Udalaren eta bere erakunde autonomiadunaren Aurrekontua Betearazteko Arauarekin bat, ondoko hau*

*A tenor del informe de Intervención, y de acuerdo con la legislación vigente y la norma de ejecución Presupuestaria del Ayuntamiento de Sopelana y su O.A.,*

***EBATZI DUT:***

***RESUELVO:***

*Aldatzen da 2013ko udal-aurrekontu luzatua. Hona hemen kredituak:*

*Modificar el presupuesto prorrogado del 2013. Dichos créditos se relacionan a continuación:*

***GASTU-AURREKONTUA/PRESUPUESTO DE GASTOS***

| ***PARTIDA*** | | | ***KONTZEPTUA / CONCEPTO*** | ***ZENBATEKOA IMPORTE*** |
|---|---|---|---|---|
| *07* | *444* | *62302* | *ARGIEN ALDAKETAK M MODIFICACIONES LUMINARIAS* | *52.565,00* |
| *07* | *511* | *62503* | *HAURRENTZAKO KIROL INSTALAZIOAK INSTALACIONES DEPORTIVAS INFANTILES* | *20.000,00* |
| *07* | *444* | *60101* | *URKO IBARRA BERRESKURATZEA RECUPERACIÓN VEGA URKO* | *170.769,42* |
| | | | ***GUZTIRA / TOTAL*** | ***243.334,42*** |

***FINANTZAZIOA: DIRU-SARREREN AURREKONTUA***
***FINANCIACION: PRESUPUESTO DE INGRESOS:***

| ***PARTIDA*** | ***KONTZEPTUA CONCEPTO*** | ***ZENBATEKOA IMPORTE*** |
|---|---|---|
| *710.04* | *EVE* | *14.945,00* |
| *710.04* | *INDUSTRIA SAILA EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO DPTO. INDUSTRIA* | *37.620,00* |
| *710.03* | *INGURUMEN SAILA EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO DPTO. MEDIO AMBIENTE* | *20.000,00* |
| *710.02* | *IHOBE EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO IHOBE* | *116.715,72* |
| *720.02* | *BIZKAIKO FORU ALDUNDIA INGURUMEN SAILA* | *54.053,70* |

*DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA. DPTO. MEDIO AMBIENTE*

***GUZTIRA / TOTAL*** ***243.334,42***

Osoko Udalbatzak aho batez, erabakitzen du

Jakinaren gainean geratzea.

**3.- BERRI EMATEA.- 0414/2013 ALKATETZA DEKRETUA, APIRILAREN 22KOA:- GAIA: ALKATETZAREN ESKUORDETZEA:-** Honen berri eman da, eta hitzez hitz, honela dio:

***ALKATEAREN DEKRETUA 0414/2013 ZENBAKIDUNA***

*Sopelan, 2013ko martxoaren 22an.*

*Sopelanako Udalaren Araudi Organikoaren 5. artikuluak xedatzen duenarekin bat, 2013ko maiatzaren 2 eta 3 herrian egongo ez naizenez, honako hau*

***EBATZI DUT**:*

*1.- Alain Goldaraz Rodríguez jauna, Sopelanako Udaleko 1. alkateordea dena, nire ordezkoa izan bedi dagokidan karguan, eta horretarako berari eskuordetzen dizkiot Alkatetzaren eginkizun guztiak 2013ko maiatzaren 2 eta 3 egunetan.*

*2.- Argitara bedi ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.*

*3.- Eman bekio Dekretu honen berri Udalbatzari.*

Osoko Udalbatzak, aho batez, erabakitzen du

Jakinaren gainean geratzea.

El Pleno, por unanimidad, acuerda

Darse por enterado.

**3.- DACION DE CUENTA DECRETO DE ALCALDIA NUMERO 0414/2013, DE 22 DE ABRIL, RELATIVO A DELEGACIÓN DE ALCALDIA:-** Dada cuenta del mismo, que es del siguiente tenor literal:

***DECRETO DE ALCALDIA NUMERO 0414/2013***

*En Sopelana, a 22 de marzo de 2013.*

*De acuerdo con lo que determina el Art. 5 del Reglamento Orgánico Municipal del Ayuntamiento de Sopelana y con motivo de mi ausencia del Término Municipal los días 2 y 3 de mayo de 2013.*

***RESUELVO**:-*

*1.- Que D. Alain Goldaraz Rodríguez 1º. Teniente de Alcalde del Ayuntamiento de Sopelana, me sustituya en el cargo, delegando en el mismo la totalidad de las funciones de la Alcaldía, los días 2 y 3 de mayo de 2013.*

*2.- Publicar esta Resolución en el Boletín Oficial de Bizkaia.*

*3.- Dar cuenta de este Decreto al Pleno.*

El Pleno, por unanimidad, acuerda

Darse por enterado.

**ATAL ERABAKITZAILEA**

**PARTE RESOLUTIVA**

**Ekonomia eta Ogasuna**

**Economía y Hacienda**

**4.- AURREKONTUA, KREDITUAK GAITUZ, ALDATZEKO 7. ESPEDIENTEA ONARTZEA,**

**4.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, EXPEDIENTE NUMERO 7 DE MODIFICACIÓN**

**BIDEZKOA BADA.** Aztertu da 2013ko indarreko Aurrekontua kredituak gaituz aldatzeko izapidetu den espedientea (7/13 espedientea), eta kontuan hartu da indarreko legerian xedatutakoa, bai eta ondoko hau ere:

Lehenengoa.- Espedienteak barne hartzen ditu bere gastua eta finantzazioa justifikatzeko beharrezkoak diren dokumentuak.

Bigarrena.- 10/03 Foru Arauaren 31.5 artikuluarekin eta Aurrekontua Betearazteko Udal Arauarekin bat, espedientea onartzeko organo eskuduna Udalbatza da.

Jarraian, Bildu udal talde politikoko Leire Pinedo andreak hitza hartu du, eta adierazi du gai hori eta hurrengo biak Ekonomia eta Ogasuneko Informazio Batzordearen bileran aztertu zirela. Gastuen izaeragatik ezberdinak diren hiru aldaketatan egituratuta daudela esan du. Gai horri dagokionez, Lurzoruaren Udal Ondareari dagozkion inbertsioez hitz egiten ari da. Hurrengo gaian gastu arruntez hitz egiten da, eta azken aldaketan, aldiz, inbertsioez. Premiak eta lanak egin beharrak aurrekontuaren hiru aldaketa horiek eragin dituzte. Lurzoruaren Udal Ondareari buruzko lehenengo espedientean aldaketak eskalada-murrua, igerilekuen teilatua eta liburutegiko leihoak konpontzeari buruzkoak dira. Azken kasu horretan, Eusko Jaurlaritzaren errekerimendu bidez egin beharreko obra bat da, Eusko Jaurlaritzak adierazi baitu liburutegiko leiho guztiak aldatu behar direla. Aldaketa osoak 103.000 €-ko gastua dakar, eta diru-sarreren zatia 2013ko aurrekontuan jada adierazi dena da. Aurreko urteko soberakina dela-eta, dagoen zorra kitatu da. Hurrengo espedientea gastu arrunten II. kapituluari dagokiona da. Udaleko sailek beren funtzionamendu arrunterako premiazkotzat eta beharrezkotzat jotzen dituzten gastuak dira. Honela laburbildu daitezke: Udaltzaingoaren ibilgailuaren konponketa; instalazio elektrikoen derrigorrezko kontrola; zarata-mapa derrigor egin beharra; txakurrak biltzeko kontratua (Udalak egin behar du, Mankomunitatean ez baita adostasunik lortu

**PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.** Visto el expediente tramitado por habilitación de crédito dentro del vigente Presupuesto Municipal para 2013 (Exp. 7/13), en virtud de lo dispuesto en la legislación vigente, y teniendo en cuenta que:

Primero:- El expediente contiene los documentos necesarios que justifican el gasto y la financiación del mismo.

Segundo.- De conformidad con la Norma Foral 10/03, en su art 31.5 y la Municipal de Ejecución Presupuestaria, el órgano competente para la aprobación del expediente es el Pleno de la Corporación.

A continuación toma la palabra Dª Leire Pinedo, del grupo político municipal Bildu, para señalar que este tema y los dos siguientes se trataron en la Comisión Informativa de Economía y Hacienda. Que están estructuradas en tres modificaciones distintas por la naturaleza de los gastos. En relación a este punto, se está hablando de inversiones correspondientes a Patrimonio Municipal del Suelo, en el punto siguiente se está hablando de gastos corrientes y en la última modificación se habla de inversiones. Las tres modificaciones presupuestarias vienen motivadas por la urgencia y la necesidad de realización de los trabajos. En este primer expediente, de Patrimonio Municipal del Suelo, son modificaciones correspondientes a la reparación del rocódromo, del tejado de piscinas y de las ventanas de la Biblioteca. En este último caso, se trata de una obra que hay que realizar por requerimiento del Gobierno Vasco, el cual señala que hay que modificar todas las ventanas de la Biblioteca. La modificación total es de 103.000 € y la parte de los ingresos sería aquella que ya estaba contemplada en el presupuesto de 2013 y que por el excedente del año anterior que se ha cancelado la deuda existente. El siguiente expediente es el correspondiente al capítulo II de gasto corriente. Son gastos considerados de urgencia y necesidad por los diferentes departamentos del Ayuntamiento para el normal funcionamiento de dichos

horrek bideratu dezan); eguneratu gabe 4 urte inguru daraman udal artxiboa (horren ondorioz, zaila da Udalaren dokumentazioa aurkitzea); mezularitza-zerbitzua (sail bakoitzak zerbitzu hori kontratatzen zuen bere kabuz, eta, urteko gastuari buruzko azterlana egin ondoren, zerbitzu hori optimizatzeko asmoz kontratu bakarra egitea proposatu da); Bareño urbanizazioko kablearen hornidura (hainbat alditan lapurtu denez, urbanizazioa argirik gabe dago); eta aireko linea kentzea. Horrek guztiak 116.690 €-ko gastua dakar, eta, aurreko aldaketan bezala, 2012ko diruzaintza-gerakinaren bidez jada likidatu den 2009ko Udalkutxaren amortizaziorako erabili behar zen zati baten diru-sarrerak erabiliz egingo litzateke. Aldatzeko hirugarren eta azken proposamenari dagokionez, inbertsioen VI. kapituluari dagokiona izango litzateke, horiek Lurzoruaren Udal Ondarea ez direla. Aldaketa horren barnean, honako hauek sartzen dira: argien aldaketa: udalerriko kanpoko argiak aldatzeko proiektua dago, EEEk eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak neurri handian diruz lagundu dutena, diru-laguntza hori inbertsioaren % 70 ingurukoa dela; Urkoko ibarra leheneratzea, urak har dezakeen gunea delako eta uste dutelako ingurumenaren aldetik leheneratu beharreko gunea dela, horrela, ibaiaren beraren gainezkabidea izateko une zehatz batzuetan. Obra horrek diru-laguntza handia dauka, gastuaren % 70 ingurukoa, alegia. Halaber, honako hauek ere sartzen dira aldaketa horren barnean: Zipiriñe ikastetxearen inbertsioa eta oinarrizko berritzea, eraikinak bere zerbitzuei eutsi diezaien; lantaldeak berak eskatu duen Obra Lantaldearen ibilgailua erostea, baita horretarako tresna metalikoak ere; Sertutxa plazaren konponketa (erortzeko arrisku handia egoteagatik hesiz inguratuta baitago); UE 5.2 urbanizazioa, aurreko legegintzalditik datorren eta ordaindu behar den ordainketa-konpromisoa dena; eta Larrabasterrako errepideko semaforoa, hainbat pertsonak etengabe eskatu dutena. Gai horri buruzko eskabidea bidali zitzaion Foru Aldundiko Errepideen Sailari, baina, hori egingo ez dutela ikusita, uste dute Udalbatzak egin beharko lukeela; ekipo informatikoak eta altzariak berritzea; eta udal instalazioak

departamentos. Se resumen en: reparación vehículo de la policía municipal, el control obligatorio de las instalaciones eléctricas, elaboración obligatoria del mapa de ruidos, el contrato de recogida de perros (que lo debe hacer el Ayuntamiento, toda vez que desde la Mancomunidad no se ha llegado a un consenso para poder tramitarlo desde allí), el archivo municipal que lleva aproximadamente 4 años sin ponerse al día, por lo que la documentación del Ayuntamiento resulta difícil de localizar; el servicio de mensajería, toda vez que el mismo se contrataba independientemente y de forma autónoma por cada uno de los departamentos y al haber realizado un estudio del gasto anual se propone realizar un único contrato para optimizar este servicio; el suministro de cable de la urbanización Bareño, toda vez que ha sido sustraído varias veces y está sin alumbrado, y la eliminación de la línea aérea. Todo ello hace un total de 116. 690€ que al igual que la anterior modificación se haría con los ingresos de una parte que se tenía destinada a la amortización de Udalkutxa de 2009 ya liquidada con el remanente de tesorería del año 2012. En cuanto a la tercera y última propuesta de modificación, sería la que corresponde al capítulo VI de inversiones y no son patrimonio municipal del Suelo. En esta modificación se engloban: modificación de luminarias toda vez que hay un proyecto para modificación de las luminarias exteriores del municipio en gran parte subvencionado por el EVE y el Dpto. De Medio Ambiente del Gobierno Vasco, siendo ésta de aproximadamente del 70% de la inversión; la recuperación de la Vega de Urko, toda vez que es zona inundable y consideran que debe ser zona a recuperar medioambientalmente y así tener un aliviadero al propio rúo en momentos puntuales. Esta obra cuenta con una gran parte de subvención, alrededor de un 70% del gasto. También se mete en esta modificación la inversión y reposición básica del Colegio Zipiriñe que es para que el edificio mantenga sus servicios; compra de vehículo de la Brigada de Obras que la misma brigada lo ha solicitado así como herramientas metálicas para la misma; arreglo de la plaza Sertutxa, toda vez que está vallada por peligro

berritzea. Horrek 232.269,25 €-ko zenbatekoa dakar, eta diruaren jatorria aurrekontuaren aurreko aldaketetan aipatutakoa da.

inminente de caída; la urbanización UE 5.2 que es un compromiso de pago que viene de la legislatura anterior y hay que pagarla.; semáforo en la carretera de Larrabasterra, petición realizada insistentemente por diferentes personas. Sobre este tema se remitió al Departamento de Carreteras de la Diputación foral la solicitud del mismo pero viendo que no lo van a hacer, consideran que lo debería hacer la Corporación; renovación de equipos informáticos y mobiliario y reposición de instalaciones municipales. Esto importa un total de 232.269,25 € y el origen del dinero es el mismo que en las anteriores modificaciones presupuestarias.

Jarraian, Alderdi Popularra udal talde politikoko Berta Rodríguez andreak hitza hartu du, eta adierazi du Udalbatza osoak jakitea nahi duela 10 minutu lehenago alkate andreak esan diola ez diola mezu elektronikorik bidaltzen eta ez dela harekin harremanetan jartzen, inoiz adostasunik lortzen ez dutelako, eta ez dela horregatik arduratuko. Horregatik guztiagatik, gaia eztabaidatuko ez duela esan du. Horiek bozkatu baino ez du egingo.

Acto seguido toma la palabra Dª Berta Rodríguez, del grupo político municipal Partido Popular, para señalar en primer lugar, que desea que todo el Consistorio sepa que que con palabras de la Sra. Alcaldesa, no hace ni 10 minutos, le ha comentado que no le envía correos, ni se comunica con ella, porque al parecer nunca llega a ningún acuerdo, por lo que para qué se va a molestar. Que por todo ello, no entrará a debatir el asunto. Se limitará a votarlos.

Ondoren, Sopelanako Euskal Sozialistak udal talde politikoko (PSE.EE.PSOE) Teresa Fernández andreak hitza hartu du, eta historia apur bat gogorarazi nahi duela adierazi du. 2013an 2012ko ekitaldiko aurrekontu luzatua dago. Gogorarazi nahi du 2012ko aurrekontua ez dela Alderdi Sozialistaren aurrekontua, beste indar batzuen artean itundu baitzen eta bere taldeari adostasunik lortzeko inolako aukerarik eman ez baitzitzaion. Kontu hori baloratuta, adierazi behar du funtsean ez duela ezer proposatzen diren aldaketen aurka. Udaltzaingoak autoa izatea, ekipo informatikoak erostea, igerilekuetako teilatua konpontzea eta abar nahi dute, jakina. Horri buruz ez da zalantzarik egon behar. Kontua da bere taldea mespretxatuta sentitu dela. Izan ere, ez zaio aukerarik eman aurrekontuaren logika horretan parte hartzeko. Badirudi gobernu taldearentzat horixe dela aurrekontuaren logika bakarra, nahiz eta beste asko egon. Izan ere, denek ez daukate ikuspegi bera egin behar denari buruz, eta

Después toma la palabra Dª Teresa Fernández, del Grupo político municipal Socialistas Vascos (PSE.EE.PSOE) de Sopelana, para señalar que en primer lugar quiere hacer un poco de historia. Nos encontramos en el año 2013 con el presupuesto prorrogado del ejercicio 2012. Quiere recordar que el presupuesto de 2012 no es el presupuesto del Partico Socialista porque se pactó entre otras fuerzas y a su grupo no se le dió oportunidad de llegar a ningún acuerdo. Puesta en valor esa cuestión, tiene que decir que las modificaciones que se proponen, en el fondo, no tiene nada que objetar. Por supuesto que quieren que la Policía Local tenga coche, que se compren equipos informáticos, que se arregle el tejado de las piscinas, etc. Que de eso no quepa ninguna duda. El asunto es que su grupo se ha sentido maltratado. No se ha dado opción a participar en esta lógica presupuestaria que parece ser que para el equipo de gobierno es la única lógica presupuestaria que existe, cuando hay otras

asmoa partekatzea, negoziatzea eta adostasuna lortzen saiatzea da. Askotan, kontu ideologiko, sinboliko edo erakunde arlokoekin zerikusia duten gaietan, sekulako lana egiten da talde guztiek baterako erabakiak hartzeko: itunak egiten dira, elkarrizketak egiten dira, zirriborroak prestatzen dira.... Baina mota horretako gaietan ez da ahalegin berdina egin. Uste du, alde horretatik, ahalegina egin beharko litzatekeela kontu horiek guztiak atalez atal aztertzeko, adostasunak lortu ahal izateko. Haren taldeari oso deigarri egin zaio 2. aztergaian aipatutako Alkatetza Dekretua. Izan ere, horretan aurrekontuaren aldaketa batzuen berri ematen da, eta, diru-laguntza finalistak direnez, Alkatetzak duen eskumena erabilita, aurrekontuaren aldaketa erabaki dezake, legeak horretarako baimena ematen baitio. Hala ere, ez da aipatu diru-laguntza horiek ez dutela estaltzen proiektuaren % 100, % 80 baizik, eta gainerako % 20 Udalak ordaindu beharko du, Udalaren osoko bilkurak aurrekontuaren aldaketa baten bidez baimena eman eta gero. Hori erabaki denean, aurrekontuaren aldaketa onetsiko zela ziurtzat jo den galdetu du. Hitz egin eta negoziatu gabe, ziurtzat jotzen zen galdetu du. Adibidez, semaforo bat instalatzeaz hitz egiten denean, gai hori hainbat Batzorderen bileretan aztertu da. Asmoa zirkulazioa geldotzea, erlaxatzea eta istripuak saihesteko eta zirkulazioa ahalik eta lasaiena izateko sistema bilatzea da, eta ez daki oso ondo zergatik jarri behar den semaforo bat, eta ez beste neurri batzuk. Urkoko ibarra birmoldatzeari dagokionez, esan nahi du bilera honetara arte ez dutela jakin zer egingo den ibar horretan, ondorio horretarako proiektua eman ez baitzaie. Hori ikusita eta mamia ukatu gabe, gai horiek eguneko aztergai-zerrendatik kentzeko eta gaiak aztertzeko zentzuzko denbora (Udalaren osoko bilkuraren hurrengo bilerara arte edo, beharrezkoa bada, ohiz kanpoko bilera egin arte) emateko eskatu du, horiek aztertu, negoziatu eta ituntzeko. Hala ere, erantzuna ezezkoa izan da. Horregatik guztiagatik eta formekin ados ez egoteagatik, hiru puntuei aurkako botoa emango diete.

muchas, toda vez que no todos deben tener la misma visión de lo que se quiere hacer y de lo que se trata es de compartir, negociar e intentar consensuar. En muchas ocasiones y en temas que tienen que ver con cuestiones ideológicas, simbólicas o institucionales, se hace lo indecible por llegar todos los grupos a acuerdos y se pacta, se habla, se hacen borradores, etc., en este tipo de cuestiones no ha habido el mismo tipo de esfuerzo. Considera que en ese sentido, se debería hacer un esfuerzo para que todas esas cuestiones se vieran punto por punto para llegar a acuerdos. A su grupo le ha llamado poderosamente la atención que en el punto número 2 se da cuenta de un Decreto de Alcaldía en el que se informa de unas modificaciones presupuestarias y en el que por el uso de la prerrogativa que la Alcaldía tiene, toda vez que son subvenciones finalistas, puede decretar la modificación presupuestaria porque la Ley se lo permite. Lo que no se ha dicho es que estas subvenciones no cubren el 100% del proyecto sino un 80%, y el 20% restante tiene que ponerlo el Ayuntamiento previa autorización del Pleno mediante una modificación presupuestaria. Cuando se decreta ésto ¿se daba por sentado que se iba a aprobar la modificación presupuestaria? Sin hablar, sin negociar, ¿se daba por sentado?. Por ejemplo, cuando se habla de la instalación de un semáforo, este asunto ya se había tratado en varias comisiones y de lo que se trata es de ralentizar el tráfico, de relajarlo y de buscar un sistema para evitar accidentes, para evitar que el tráfico sea lo menos agresivo posible, etc, y no entiende muy bien el porqué tiene que ser un semáforo y no otra serie de medidas. En lo referente a la remodelación de la Vega de Urko, decir que hasta este pleno, no han tenido conocimiento de lo que se iba a hacer en la Vega de Urko, toda vez que no se les ha presentado el Proyecto al efecto. Visto ésto y sin negar el fondo, se ha solicitado la retirada de los puntos del orden del día y dar un tiempo prudencial para estudiar los temas para el pleno siguiente o incluso hacer un pleno extraordinario si es necesario para tratar, negociar y pactar los mismos, y se le ha dado una negativa por respuesta. Que por

Jarraian, Eusko Abertzaleak udal talde politikoko Leire Basauri andreak hitza hartu du, eta adierazi du aurrekontuaren aldaketaren bidez konpondu nahi diren taldeei eta kontzeptuei buruz Udalaren osoko bilkuraren bilera horretan eman zaizkien xehetasun guztiak eskertu nahi dituela. Informazio hori guztia une horretan hartzen ari dira, bilera horretara joan diren pertsona guztiak bezala. Teresa Fernández andreak adierazitakoaren ildotik, bere taldeak ere sentitzen du une horretan jasotako informazio hori guztia Informazio Batzordearen bileran jaso ez izana. Halaber, ez du ulertzen kontzeptuen multzoak itxitzat jotzea, horiek aldatu, bereizi edo bestela egiteko aukerarik eman gabe. Kontua honela aurkeztu da: proiektu horietako baten bat diru-laguntza horiei lotuta dagoenez eta diru-laguntza horiek bortxa gisa erabiltzen direnez, une zehatz batean aurrekontuaren aldaketak onesten ez badira, hau da, hizpide dutena onesten ez bada, diru-laguntzak galduko dira. Hona hemen berak duen zalantza: aurrekontuaren aldaketa horiek orain onesten ez badira, diru-laguntzak galduko dira? Badago proiekturen bat, Urkoko ibarra leheneratzeari buruz? Bere taldeak ez du ikusi. Ez zaie aurkeztu, nahiz eta espedientea eskura egon. Bere taldearen botoa ez dago gaien mamiari lotuta, formari baizik. Uste dute aurrera atera behar diren proiektuak eta gastuak direla, adibidez, liburutegiko leihoen aldaketa, igerilekuen eraikineko sabaiaren konponketa, zarata-mapa egitea eta abar. Beraz, bere taldearen botoa formaren aurkakoa eta gobernu taldeak duen lan-metodologiaren aurkakoa da. Uste dute, Udalaren gobernuko arduradunak diren aldetik, irregulartasunak gauzatzen ari direla, eta irregulartasunez hitz egiten du, ez direlako gai gaiak oposizioko alderdiei aurkezteko, erabakia, adostasuna edo baterako proiektua lortzeko asmoz. Guztira, 17 zinegotzi dira, nahiz eta gobernu taldeko kideak 7 baino ez diren. Hori ez ahazteko esan du.

todo ello y por no estar de acuerdo con las formas, votarán en contra de los tres puntos.

Acto seguido toma la palabra Dª Leire Basauri, del Grupo Político Municipal Eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos, para señalar que en primer lugar quisiera agradecer todos los detalles que se les acaba de facilitar en este pleno respecto a las agrupaciones, conceptos, a los que se quiere hacer frente con esta modificación presupuestaria. Toda esa información la están recibiendo en estos momentos, al igual que toda la gente que ha asistido a esta sesión. Que en la misma línea que la expuesta por Dª Teresa Fernández, su grupo echa en falta toda esa información recibida hoy, se haya dado, cuando menos, en la Comisión Informativa. Dicho ésto, tampoco entiende que las agrupaciones de conceptos se den cerradas, sin posibilidad de entrar a modificarlas, segregarlas, o realizarlas de otra manera. Se presenta la cuestión como que en un momento dado si no se aprueban las modificaciones presupuestarias y puesto que alguno de esos proyectos están enlazados con unas subvenciones y se utilizan las mismas como coacción, es decir, si no se aprueba ésto se pierden las subvenciones. Su duda es la siguiente: si estas modificaciones presupuestarias no se aprueban hoy ¿se perderían las subvenciones? ¿existe algún proyecto sobre la recuperación de la Vega de Urko?. Su grupo no lo ha visto. No se les ha presentado, por mucho que se tenga el expediente a disposición. Que el voto de su grupo no va al fondo de los asuntos, sino a la forma. Entienden que son proyectos y gastos que debieran salir adelante, como el cambio de las ventanas de la biblioteca, la reparación del techo del edificio de piscinas, la elaboración del mapa de ruido, etc. Que el voto de su grupo va en contra de la forma, de la metodología de trabajo que tiene el equipo de gobierno. Consideran que como responsables del gobierno de este Ayuntamiento están incurriendo en irregularidades, y dice irregularidades porque no son capaces de plantear los temas a los partidos de la oposición para conseguir un acuerdo, consenso o un proyecto común.

Que en total son 17 Concejales, y que el equipo de gobierno 7. Que no se olvide.

Ondoren, Leire Pinedo andreak hitza hartu du, eta adierazi du funtsean Sopelanako auzokoei zerbitzu horiek kenduko zaizkiela, eta horixe dela Udalaren osoko bilkuraren bilera horretan bozkatuko dena. Beharrezko obrak (adibidez, kiroldegiko teilatua, aspalditik arazoak ematen dituena) egin nahi ez direla esan du. Argi geratzea nahi du nork utziko dituen auzokoak udal zerbitzu guztiek funtzionatzeko beharrezkoak diren obra horiek gabe. Alderdi Sozialistak esaten duenean mespretxatuta sentitu dela aurrekontuaren logikan parte hartzen utzi ez diotelako, esan nahi du 4 hilabetez hitz egin dela gaiari buruz, eta ez zaiola aukerarik eman aurrekontuaren logikan parte hartzeko. Lau hilabete eman dira, gobernu taldearen aurrekontu-proposamenean zeuden proiektuak azaltzen. Proiektu horiek aldaketen harira bilera horretan aurkezten direnak dira, eta horiei buruz hitz egin da aldez edo moldez bi aldeko bileretan, Informazio Batzordeen bileretan eta gobernu taldeko hainbat kiderekin. Berak aurrekontuaren aldaketa guzti-guztiak azaldu zituen dagokion Batzordearen bileran. Beste kontu bat da entzun nahi izatea ala ez. Pertsona bat forman geratzen denean, oro har mamia galtzen du. Alkatetzak ahaleginak egin zituen, taldeek gaiari buruz hitz egin zezaten, baina ez da inolako proposamenik jaso.. Nork entzun nahi izan duen eta nork ez adierazi nahi bada, nork agertu duen horretarako gogoa eta nork ez ere esan daiteke. Informazio Batzordearen bileraren hurrengo egunean, Alkatetzak mezu elektronikoa bidali zien talde politikoei, gai horiei buruz hitz egin ahal izateko. Proiektu horiek azaldu ziren, eta horietako gehienak beharrezko eta derrigorrezko obrak dira. Informazioa Udalaren osoko bilkuraren bilera horretan jasotzeari dagokionez, gezurra dela esan behar du. Udalaren osoko bilkuraren bilera batean hainbat gezurra esan arren, horiek ez dira egia bihurtzen. Aldaketa guztiak azaldu ziren, eta gehiago ere azaldu nahi ziren, baina aurrean dagoen pertsonak entzun nahi ez duenean, puntu zehatz bateraino

Después toma la palabra Dª Leire Pinedo, para señalar que el fondo es que se va a dejar sin esos servicios a los vecinos y vecinas de Sopelana, y eso es lo que se va a votar en este Pleno. Que las obras que son necesarias como el tejado de la piscina del polideportivo, que dicho sea de paso está dando problemas hace muchos años, no sequiere hacer. Que quede claro quién va a dejar a los vecinos y vecinas sin esas obras que son necesarias para el funcionamiento de todos los servicios municipales. Cuando el Partido Socialista dice que se ha sentido maltratado por no haberles dejado participar en la lógica presupuestaria, tiene que decir que se ha estado 4 meses hablando del tema y ¿no se ha dado opción para participar en la lógica presupuestaria?. Cuatro meses explicando proyectos que estaban en la propuesta presupuestaria del equipo de gobierno. Esos proyectos son los mismos que se traen hoy en las modificaciones y se ha hablado de ellos por activa y por pasiva en reuniones bilaterales, en comisiones informativas y con diferentes miembros de este equipo de gobierno. Que ella personalmente explicó todas y cada una de las modificaciones presupuestarias en la correspondiente Comisión. Que otra cosa es querer escuchar o no. Que cuando una persona se queda en la forma, generalmente pierde el fondo. Que por parte de Alcaldía se intentó para que los diferentes grupos pudieran hablar sobre este tema y no se ha recibido propuesta alguna. Si se quiere hablar de quién ha querido y quién no, también se puede decir quién ha mostrado disposición y quién no. Por parte de Alcaldía, al día siguiente de la Comisión Informativa se envió un mail a los grupos políticos para poder hablar sobre estos temas. Que estos proyectos estaban explicados y la mayoría de ellas son obras necesarias y obligatorias. Que en cuanto que la información se está recibiendo ahora en este Pleno, decir que es falso. Por más que se quiera decir mentira tras mentira en un Pleno, no se convierte en verdad. Se explicaron todas las modificaciones y se querían explicar más pero cuando la

baino ez da heltzen. Multzoak itxiak eta aldatzeko aukerarik gabekoak izateari dagokionez, esan behar da espedienteak aurkeztu behar direla eta forma zehatz bat izan behar dutela, eta horixe dela, hain zuzen, bilera horretan azaldu dena. Oposizioko taldeek hainbat tresna dituzte, hala denean, behar den moduan eta bidezko bidetik aldaketak egin ahal izateko ezagutu beharko liratekeenak: zuzenketak eta abar. Lotsagabea da mamiekin bai, baina formekin ados ez dagoela esatea. Aurrekontuaren gaiaz hitz egiten saiatu da lau edo bost hilabetean. Halaber, gobernu taldearen ateak zabalik egon dira, horretaz hitz egiteko. Udalaren osoko bilkuraren bilera egin baino lehen, espedienteak Udalbatzako edozein kideren eskura daude, eta horiek ikusi nahi dituenak horiek ikus ditzake.

persona que está delante no quiere escuchar, se llega hasta donde se llega. En cuanto a que las agrupaciones son cerradas y sin posibilidad de cambios, decir que los expedientes hay que presentarlos y tienen que tener una forma y es lo que ha explicado hoy. Los grupos de la oposición tienen diferentes herramientas que se deberían conocer para poder hacer modificaciones cuando corresponda, en la manera que corresponda y por la vía que corresponda, a saber enmiendas, etc. Que hay que tener mucha cara para decir que se está de acuerdo con los fondos pero no con las formas. Se ha estado intentando hablar del tema presupuestario durante cuatro o cinco meses. Han estado abiertas las puertas de este equipo de gobierno para hablar sobre ello. Los expedientes, antes de asistir al Pleno, están a disposición de cualquier miembro de la Corporación, y el que los quiere ver, los ve.

Jarraian, Sopelanako Euskal Sozialistak udal talde politikoko (PSE.EE.PSOE) Teresa Fernández andreak hitza hartu du, eta adierazi du eman berri den hitzaldi hori kexatzeko eskubidea iruditzen zaiola. Esan nahi izan dena zer den galdetu du, eta honako bi aukera hauek eman ditu: "espedienteak aurkeztu bezala onetsiko dituzue”, edo, “bestela, hau amaitu da". Horren arabera, gainerakoak udalerriak proiekturik, obrarik eta abar ez izatearen errudunak dira. Zertaz hitz egiten ari den galdetu du. Xantaia da? Bortxa? Zer da?

Acto seguido toma la palabra Dª Teresa Fernández, del Grupo Político Municipal Socialistas Vascos (PSE.EE.PSOE) de Sopelana para señalar que este discurso que se acaba de dar, le suena a recurso del pataleo, porque ¿qué es lo que quiere decir?: "o aprobáis los expedientes como los presentamos" o "se acabó", entonces el resto es culpable de que este municipio no tenga esos proyectos, obras, etc. ¿De qué se está hablando? ¿De chantaje? ¿Coacción? ¿Qué es?

Saioa Villanueva Zarandona alkate andreak erantzun du administrazio-tresnak ezagutzeaz hitz egiten ari dela eta, espediente bat zuzendu behar denean, hori zuzendu egiten dela.

Contesta la Sra. Alcaldesa, Dª Saioa Villanueva Zarandona para indicar que se está hablando de conocer las herramientas admnistrativas y cuando se tiene que enmendar un expediente, se enmienda.

Jarraian, Sopelanako Euskal Sozialistak udal talde politikoko (PSE.EE.PSOE) Teresa Fernández andreak hitza hartu du, eta *in voce* osoko zuzenketa aurkeztuko dutela adierazi du. Hori egin ahal den ala ez galdetu du.

Seguidamente toma la palabra Dª Teresa Fernández, del Grupo Político Municipal Socialistas Vascos (PSE.EE.PSOE) de Sopelana para señalar que presentarán una enmienda in voce a la totalidad. ¿Se puede o no?

Begoña Irastorza idazkari andreak erantzun du *in voce* zuzenketak aurretiko zuzenketa dagoen guztietan aurkez daitezkeela.

A lo que contesta la Sra. Secretaría Dª Begoña Irastorza, que las enmiendas in voce deben ser presentadas siempre y cuando haya una

enmienda previa.

Saioa Villanueva Zarandona alkate andreak erantzun du sistema egokia Informazio Batzordearen bileratik Udalaren osoko bilkuraren bilera hasi arte zuzenketa aurkeztea zela.

Contesta la Sra. Alcaldesa, Dª Saioa Villanueva Zarandona para indicar que el sistema hubiera sido presentar la enmienda en el periodo que va desde la Comisión Informativa hasta el inicio de la sesión plenaria.

Sopelanako Euskal Sozialistak udal talde politikoko (PSE.EE.PSOE) Teresa Fernández andreak uste du, espediente horiek ukatzean, gobernu taldeak beste aukera bat aurkez dezakeela, hau da, gaia ez dela hor amaitzen.

Indica Dª Teresa Fernández, del Grupo Político Municipal Socialistas Vascos (PSE.EE.PSOE) de Sopelana que considera que al rechazarse estos expedientes, el equipo de gobierno puede presentar otra alternativa. Que no se cierra aquí el tema.

Saioa Villanueva Zarandona alkate andreak adierazi du gai hori atzeratzen jarraituko dela, hori oposizioaren dinamika omen dela ikusita. Izan ere, Udalean edozein proiektu mota aurrera eramateko, 3 hilabete inguru igaro behar dira beti.

Contesta la Sra. Alcaldesa, Dª Saioa Villanueva Zarandona para indicar que se seguirá retrasando, toda vez que parece que es la dinámica de la oposición, ya que para llevar cualquier tipo de proyecto adelante en este Ayuntamiento tenga que pasar una media de aproximadamente 3 meses.

Sopelanako Euskal Sozialistak udal talde politikoko (PSE.EE.PSOE) Teresa Fernández andreak alkate andreari galdetu dio hitz-erdika esan dena gobernu taldeak aurrekontuaren proiektua 2013ko urtarrilaren 1ean aurkeztu zuela den. Alkate andreak erantzun du lehenengoz aurkeztu ziren lehenengo proiektuak eta alderdiekin egondako lehenengo negoziazioak azarokoak direla.

Responde Dª Teresa Fernández, del Grupo Político Municipal Socialistas Vascos (PSE.EE.PSOE) de Sopelana, preguntando a la Sra. Alcaldesa si lo que está insinuando es que el proyecto de presupuesto se presentó por parte del equipo de gobierno el 1 de enero de 2013, a lo que contesta la Sra. Alcaldesa, que de hecho los primeros proyectos que se empezaron a presentar y las primeras negociaciones que se tuvieron con los partidos, fue en el mes de Noviembre.

Sopelanako Euskal Sozialistak udal talde politikoko (PSE.EE.PSOE) Teresa Fernández andreak erantzun du hori ez dela horrelakoa. Aktak bertan daude. Oposizioari ezin zaio egotzi gezurra esatea. Itsasontzia portura eramateko arduraduna itsasontziko kapitaina dela esan du, eta ez errua zaie besteei bota behar. Kontuan hartu beharko dute 7 boto dituztela, besteak 10 direla. Hori dela eta, proiektuak aurrera eramateko ahalik eta adostasun handiena lortu nahi bada, itunak ezarri, eta gobernu taldearen ikuspegia zabaltzen saiatu beharko da. Izan ere, gobernu taldearen ikuspegia beharbada ez da bat etorriko Udalbatzako gainerako kideen ikuspegiarekin, baina besteen iritzia gobernu

Contesta Dª Teresa Fernández, del Grupo Político Municipal Socialistas Vascos (PSE.EE.PSOE) de Sopelana, que no es así. Que las actas están ahi. Que no se puede acusar a la oposición de mentir. Que el responsable de llevar a buen término el barco, es el capitán del barco.No hay que culpar al resto. Que tengan en cuenta que tienen 7 votos frente a 10, por lo que si se quiere conseguir el máximo consenso para sacar adelante los proyectos, necesitarán pactar e intentar que la visión que el equipo de gobierno tiene, a lo mejor no coincide con el resto de la Corporación, y la opinión del resto es tan legítima como la del equipo de gobierno, toda vez que representan a esa

taldearena bezain zilegi da, gainerako zinegotziak bezala, horiek bozkatu dituen udalerriko zati hori ordezkatzen baitute. Norberak bere lana du, eta Udalera etorri, galderak egin, gaiak aztertu eta abar egiten ibili behar dira.

Alkate andreak adierazi du gobernu taldeko ia kide guztiek antzera jokatzen dutela. Teresa Fernández andreak erantzun dio aldea honetan datzala: gobernu taldeko kideek beren proposamenak egin, eta horiek ezagutzen dituzte. Alderdi Popularreko bozeramaileak esandakotik ondorioztatzen denaren arabera, ez dute bera kontuan hartzen ezertarako, eta, horren ondorioz, ez daki ezer. Ez daki oposizioko gainerako taldeek hori dakiten ala ez, baina bere taldeari asko kostatzen zaio informazioa ateratzea. Hala ere, bere taldea prest dago berriro hutsetik hasteko. Aurrekontuaren aldaketa negoziatuak eta itunduak aurkeztea nahi du, eta, horrela egiten bada, proposatutako gauza guztiak egitearekin ados daudela esan du, semaforoa izan ezik; izan ere, uste du beste aukera batzuk aztertu beharko liratekeela. Normala denez, ez dute nahi Udalak diru-laguntza baten dirua itzuli behar izatea. Gaiaren premia kontuan hartuta, uste dute Udalaren osoko bilkuraren ohiz kanpoko bilera deitu daitekeela. Ez dago zertan Udalaren osoko bilkuraren maiatzeko bilerara arte itxaron.. Gauzak ondo egiteko garaiz daude oraindik.

Alkate andreak esan du badirudiela, Udalaren osoko bilkuraren ohiko bilera batean egin daitekeen zerbait egiteko, ohiz kanpoko bilera egin beharko dela, nahiz eta horrek dirutza ekarri eta diru hori beste gauza batzuk egiteko erabil daitekeen.

Alkate andreak bozketa egiteko asmoa agertu du, eta une horretan Leire Basauri andreak hitz egiteko txanda eskatu du. Izan ere, PSE.EE.PSOEko bozeramaileari bigarren aldiz hitz egiteko txanda eman zaio, eta uste du bere taldeari ere eman behar zaiola. Alkate andreak hori onartu du.

Eusko Abertzaleak udal talde politikoko Leire

parte del municipio que les han votado, como al resto de Concejales. Que cada uno tiene sus trabajos y tienen que estar viniendo al ayuntamiento, preguntando, estudiando los temas, etc.

Indica la Sra. Alcaldesa, que como casi todos los miembros del equipo de gobierno., a lo que contesta Dª Teresa Fernández que con la diferencia de que los miembros del equipo de gobierno elabora sus propias propuestas y las conocen. Que por lo que deduce de lo indicado por la Portavoz del Partido Popular, con ella no se cuenta para nada, por lo que no conoce nada. Desconoce si el resto de la oposición conoce o no, pero a su grupo le cuesta mucho trabajo sacar la información. Que su grupo está abierto a hacer una raya y volver a empezar. Que se presenten unas modificaciones presupuestarias negociadas y pactadas, y si esto es así, por supuesto que están de acuerdo en hacer todas y cada una de las cosas propuestas, con excepción del semáforo, toda vez que habría que estudiar otras opciones. Que naturalmente, no desean que el Ayuntamiento devuelva el dinero de una subvención. Que se puede convocar un pleno extraordinario dada la urgencia del tema. No tiene que esperarse al pleno del mes de Mayo. Que todavía se está a tiempo de hacerlo bien.

Contesta la Sra. Alcaldesa indicando que parece que para algo que se puede hacer en un Pleno ordinario, se va a tener que llevar a un pleno extraordinario, con el gasto que ello supone y pudiendo disponer de ese dinero para hacer otras cosas.

La Sra. Alcaldesa muestra su intención de dar inicio a la votación y en ese momento Dª Leire Basauri solicita turno de intervención, dado que se le ha facilitado un segundo turno a la Portavoz del PSE.EE.PSOE y considera que debe facilitársela a su grupo, a lo que accede la Sra. Alcaldesa.

Toma la palabra Dª Leire Basauri, del grupo

Basauri andreak hitza hartu du, eta adierazi du bakarrik gogorarazi nahi duela gobernu taldean 7 kide daudela eta Udalbatza osatzen dutenak 17 direla. Gobernua haien eskuetan dutela eta haien erantzukizuna gaiak aurrera ateratzea dela esan du. Horiek aurrera ez ateratzea Udalbatzako gainerako kideen errua ez dela adierazi du. Arazoa haiena da, hori lortzeko tresnak bilatu behar baitituzte.

político municipal Eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos, para señalar que únicamente quiere recordar que el equipo de gobierno son 7 miembros, de 17 que compone la Corporación. Que tienen el gobierno en sus manos y su responsabilidad es sacar los temas adelante. Que si no salen adelante no es culpa del resto de la Corporación. El problema es suyo. Que tienen que buscar herramientas para conseguirlo.

Alkate andreak erantzun du alde horretatik —eta hitzaldi horrekin hitz egiteko txandak amaituko direla— uste duela Eusko Abertzaleak udal talde politikoak udal ordezkaritzaren inguruko kontzeptu oso bitxia duela. Udal ordezkaritza Udalbatza osatzen duten 17 kideak dira. Eusko Abertzaleak taldeak bere erantzukizuna baztertu nahi badu eta uste badu aurkako botoa emanda gobernu taldea kaltetzen ari dela, oker dago. Kaltea Udalbatza osorako eta udalerrirako da. Norberak bere erantzukizuna dauka. Hori argi ez dagoen bitartean, unera arte bezala jarraituko da. Erabat ados dago Mª Teresa Fernández andreak berriro hutsetik hasteari buruz adierazi duenarekin.

Responde la Sra. Alcaldesa, para señalar que en ese sentido, y con ésto se termina el turno de intervenciones, considera que el grupo político municipal eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos tiene un concepto un tanto extraño de lo que supone la representación municipal. Que la representación municipal son los 17 miembros que componen la corporación. Si el grupo Eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos quiere eludir su responsabilidad y si considera que votando negativamente está haciendo daño al equipo de gobierno, está muy equivocado. El daño se hace a toda la Corporación y al municipio. Que cada uno tiene su responsabilidad. Que mientras eso no quede claro, se seguirá como hasta ahora. Que está totalmente de acuerdo con lo manifestado por Dª Mª Teresa Fernández, en relación a hacer una raya y empezar de nuevo.

Eusko Abertzaleak udal talde politikoko Leire Basauri andreak, Josu Landaluze jaunak, Naiara Ibarzabal andreak, Gontzal Hermosilla jaunak, Felix Gabarain jaunak, Emilio Ramos jaunak eta Belén Urbieta andreak, Sopelanako Euskal Sozialistak udal talde politikoko (PSE.EE.PSOE) Mª Teresa Fernández andreak eta Pablo Ig. Zabala jaunak eta Alderdi Popularra udal taldeko Berta Rodríguez andreak aurkako botoa eman dute.

Con el voto en contra de Dª Leire Basauri, D. Josu Landaluze, Dª Naiara Ibarzabal, D. Gontzal Hermosilla, D. Felix Gabarain, D. Emilio Ramos y Dª Belén Urbieta, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos; Dª Mª Teresa Fernández y D. Pablo Ig. Zabala, del grupo político municipal Socialistas Vascos (PSE.EE.PSOE) de Sopelana y de Dª Berta Rodríguez, del grupo popular municipal Partido Popular.

Osoko Udalbatzak, gehiengoz, erabakitzen du:

El Pleno, por mayoría, acuerda

Ez da onetsi proposatutako 2013ko udal aurrekontuaren aldaketa.

No aprobar la modificación del presupuesto municipal del 2013 propuesta.

**5.- AURREKONTUA, KREDITUAK GAITUZ,**

**5.- APROBACIÓN, SI PROCEDE,**

**ALDATZEKO 8. ESPEDIENTEA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.** Aztertu da 2013ko indarreko Aurrekontua kredituak gaituz aldatzeko izapidetu den espedientea (8/13 espedientea), eta kontuan hartu da indarreko legerian xedatutakoa, bai eta ondoko hau ere:

LEHENENGOA: Espedienteak barne hartzen ditu bere gastua eta finantzazioa justifikatzeko beharrezkoak diren dokumentuak.

BIGARRENA: 10/03 Foru Arauaren 31.5 artikuluarekin eta Aurrekontua Betearazteko Udal Arauarekin bat, espedientea onartzeko organo eskuduna Udalbatza da.

Eusko Abertzaleak udal talde politikoko Leire Basauri andreak, Josu Landaluze jaunak, Naiara Ibarzabal andreak, Gontzal Hermosilla jaunak, Felix Gabarain jaunak, Emilio Ramos jaunak eta Belén Urbieta andreak, Sopelanako Euskal Sozialistak udal talde politikoko (PSE.EE.PSOE) Mª Teresa Fernández andreak eta Pablo Ig. Zabala jaunak eta Alderdi Popularra udal taldeko Berta Rodríguez andreak aurkako botoa eman dute.

<u>Udalaren osoko bilkurak honako hau erabaki du, gehiengoz:</u>

Ez da onetsiko proposatutako 2013ko udal aurrekontuaren aldaketa.

**6.- AURREKONTUA, KREDITUAK GAITUZ, ALDATZEKO 9. ESPEDIENTEA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.** Aztertu da 2013ko indarreko Aurrekontua kredituak gaituz aldatzeko izapidetu den espedientea (9/13 espedientea), eta kontuan hartu da indarreko legerian xedatutakoa, bai eta ondoko hau ere:

LEHENENGOA: Espedienteak barne hartzen ditu bere gastua eta finantzazioa justifikatzeko beharrezkoak diren dokumentuak.

BIGARRENA: 10/03 Foru Arauaren 31.5 artikuluarekin eta Aurrekontua Betearazteko

**EXPEDIENTE NUMERO 8 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**Visto el expediente tramitado por habilitación de crédito dentro del vigente Presupuesto Municipal para 2013 (Exp. 8/13), en virtud de lo dispuesto en la legislación vigente, y teniendo en cuenta que:

PRIMERO: El expediente contiene los documentos necesarios que justifican el gasto y la financiación del mismo.

SEGUNDO: De conformidad con la Norma Foral 10/03, en su art 31.5 y la Municipal de Ejecución Presupuestaria, el órgano competente para la aprobación del expediente es el Pleno de la Corporación.

Con el voto en contra de Dª Leire Basauri, D. Josu Landaluze, Dª Naiara Ibarzabal, D. Gontzal Hermosilla, D. Felix Gabarain, D. Emilio Ramos y Dª Belén Urbieta, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos; Dª Mª Teresa Fernández y D. Pablo Ig. Zabala, del grupo político municipal Socialistas Vascos (PSE.EE.PSOE) de Sopelana y de Dª Berta Rodríguez, del grupo popular municipal Partido Popular.

<u>El Pleno, por mayoría, acuerda</u>

No aprobar la modificación del presupuesto municipal del 2013 propuesta.

**6.- APROBACION, SI PROCEDE, EXPEDIENTE NUMERO 9 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.** Visto el expediente tramitado por habilitación de crédito dentro del vigente Presupuesto Municipal para 2013 (Exp. 9/13), en virtud de lo dispuesto en la legislación vigente, y teniendo en cuenta que:

PRIMERO: El expediente contiene los documentos necesarios que justifican el gasto y la financiación del mismo.

SEGUNDO: De conformidad con la Norma Foral 10/03, en su art 31.5 y la Municipal de

Udal Arauarekin bat, espedientea onartzeko organo eskuduna Udalbatza da.

Ejecución Presupuestaria, el órgano competente para la aprobación del expediente es el Pleno de la Corporación.

